

GURPILTXORIK GABE IBILI NAHI DUT!

Testua eta irudiak: TOBIAS GIACOMAZZI

Itzulpena: FERNANDO REY

Kartoizko azala 22 x 26 cm. 32 or.

[Gurpiltxorik gabe ibili nahi dut!](#) (euskara)

ISBN 978-84-9172-413-1. Album irudidunak. Egile lanak.

[¡Quiero ir sin ruedines!](#) (castellano)

ISBN 978-84-1343-348-6. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

[Quero andar sem rodinhas!](#) (galego)

ISBN 978-84-1343-347-9. Álbum ilustrado. Demademora.

[Vull anar sense rodetes!](#) (català)

ISBN 978-84-10387-06-5. Álbum ilustrat. Obres d'autor/a.

[Eu quero andar sem rodinhas!](#) (português)

ISBN 978-989-749-195-5. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

[Voglio andare senza rotelle!](#) (italiano)

ISBN 978-84-1343-345-5. Albo illustrato. Gli albi di autore.

*–Gurpiltxorik gabe ibili nahi dut bizikletan!
–dio Unaik bufaka–.*

*-Goñi jaunak egiten duen bezala, besapean egunkaria daramala
ere gauza baita oreka ez galtzeko.*

-Gurpiltxorik gabe ibili nahi dut!

Borondatearen eta erresilientziaren garrantzia hazkuntzaren eta ikaskuntzaren prozesuari buruzko istorio dibertigarri batean. Ipuin honek –Album Irudidunak egiteko Nazioarteko XVII. Compostela Sariko finalista– bere bizikletari gurpiltxoak kentzeko gogo handia adierazten duen igel txiki kopetilunaren eskaera du hasiera. Unaik bere bizilagun helduen trebeziaren jabe izan nahi du, gai baitira egunkaria besapean daramatela pedalei eragiteko, edo erosketako saskia eramateko, posta banatzeko edo monoziklo baten gainean akrobaziak ere egiteko.

Hala ere, gurpiltxorik gabe egiten duen lehenbiziko paseoa negarretan eta frustrazioan amaitzen da, baina imitatu nahi zituen horiek modu harrigarrian adierazten diote elkartasuna «Gurpiltxorik gabe ibili nahi dut!» haur askoren istorioa da. Haur gehienek, kontakizun honetako protagonista maitagarri eta urduriak bezala, laster haztea helduagoen gauzak egitea du amets. Baina estropezu egitea eta nahi ez duena hain laster ez lortzea ikasbide bihurtuko zaizkio ongi jakiteko zer diren enpatia, elkartasuna, saiatu beharra eta erresilientzia.

Tobias Giacomazzi askotariko animalia gizatiartuak biltzen ditu istorioan: behia, txakurra, uso mezularia, matxinsaltoa... Testu soilean ongi nabarmentzen da liburuaren izenburua den esaldiaren errepikapena, Irudiak bi orrialdeko eszenetan ematen dira, eta haietan xehetasunak, erretratuak eta hiri-giroa dira nagusi, umorezko txantxa goxoei: kalean irakurtzen ari den egunkaria mokoarekin zeharkatzen duen zikoina; aireak eramanda trikuaren arantzetan iltzatzen diren kartak; ezkutatu nahian dabilen sagua eta buztana tranpa batean harrapatu duen katua... Pertsonaien adierazkortasunarekin eta pastel-tonuen bidezko tratamendu kromatikoarekin batera, egileak ongi erakutsi du bikaina dela perspektibak eta enkoadraketa-planoak egiten.




- **Galak:** haztea, ikastea, autonomia
- **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera
- **Alderdi azpimagarriak:** erresilientzia, lankidetzak, elkartasuna. Hiria, gizarte-bizitza. Jolasa, bizikleta, garraibide jasangarriak. Umorea
- **Liburuaren aurrerapena:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/gurpiltxorik-gabe-ibili-nahi-dut-eus>

Tobias Giacomazzi

(Castelfranco Veneto, 1997)

Irudigintza ikasi zuen Maceratako Arte Ederren Akademian (Italia), eta, ikasketak bukatutik, zenbait urtez aritu zen lanean liburu-denda batean, haurrentzako liburuaren arloan bereziki. Ondotik, sormenezko idazketa lantzeko ikastaro batzuk egin zituen, eta esperientzia hura musikaren arloan aplikatu zuen. Gaur egun, "I Brema" musika taldean ari da eta bertan kantak idatzi eta kantatzen ditu, eta gitarra jo ere bai. Bi album ditu argitaraturik: "Nessun dove" eta "Le opinioni delle ombre"

<https://www.instagram.com/tobiasgiacomazzi/>



www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.  Pamiela.com
etxea
soltxate@pamiela.com